

PRENTSA-OHARRA

Eguzki-energia termikoa sustatzeko instalazio berritzaile bat

- *Tekniker zentro teknologikoak MOSAIC proiektua koordinatu du, eraikuntza- eta eragiketa-gastu gutxiago sortuko dituen CSP instalazio-kontzeptu berri bat garatzea eta baliozkotzea xede duena*
- *Kontzentragailu esferiko finkoak erabiltzen dituen teknologia benetako baldintzetan probatuko da CENER Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalaren instalazioetan, Zangozan (Nafarroa)*
- *Zentroak zinematika paraleloan eta bista anitzeko fotogrametrian oinarritutako hartzailearen kokapen-sistema berritzaile bat garatu eta ezarri du, bai eta emaria kontrolatzeko sistema berri bat ere*

[Eibar, 2022ko urtarrilak 25] - Eguzki-energia termoelektrikoa, CSP siglen bidez ere ezagutzen dena (Concentrated Solar Power), eguzki-energia termiko bat da, eta elektrizitatea modu jasangarri eta kudeagarrian sortzea ahalbidetzen du, teknologia fosilen eraginkortasun-maila berberarekin. Espainiako merkatu elektrikoan, zentral mota horiek errealitatea dira dagoeneko; alabaina, instalazioak eta mantentze-lanek kostu handia dutenez, Europan ez dira gehiegi hazi eta hedatu.

Alde horretatik, **Tekniker** zentro teknologikoak, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide denak, MOSAIC proiektua koordinatu du azken bost urteetan, CSP instalazioaren kontzeptu berri bat garatzeko eta baliozkotzeko xedez, errendimendu berdintsuekin, baina egungo CSP instalazioek baino eraikuntza- eta eragiketa-kostu txikiagoekin.

Instalazio-kontzeptu modularra da, eta modulu bakoitzak kontzentratzaile esferiko finko bat eta hargailu mugikor bat (SRTA, Stationary Reflector/Tracking Absorber) dauzka.

Proiektuarekin, 300 kW-ko modulu baten prototipoa eraiki da Zangozako (Nafarroa) Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalean (CENER), eta baliozkotze-entseguak berriki hasi dira.

Horretarako, Teknikerrek, sistema mekanikoen diseinuan, zehaztasuneko ingeniartzan, ingeniartza termikoan, sistema autonomo adimendunetan eta automatizazio eta kontrolean duen espezializazio-maila altuari esker, hargailu mugikorra kokatzeko sistema berritzaile bat asmatu eta ezarri du, zinatika paraleloan eta fotogrametria multibistan oinarrituta. Bada, gutxi gorabehera 20 metroko altuera duten lau tiro-dorretan sakabanatutako zortzi kablari eraginez jarduten du sistema horrek (kableen luzera aldakorra da, 5 eta 35 metro artekoa). Era berean, emaria kontrolatzeko sistema berri bat garatu du hargailurako, hargailuaren irteeran dagoen tenperatura zehaztasun handiagoz kontrolatzeko.

“Kokapen-sistema horrek aukera ematen digu hargailua egunean zehar kontzentragailuen gainean lekualdatzeak sortzen zuen erroka gainditzeko, eguzki-energiaren kontzentrazio altuak eta, ondorioz, tenperatura eta eraginkortasun-maila altuak bermatuz. Gainera, teknologia horrek kostuak murrizteko potentzial handia du, bai inbertsiokoak, bai eragiketakoak eta bai mantentzekoak; izan ere, eguzki-eremu finkoek jarraipen-gailuei lotutako gastuak saihesten dituzte, eta egitura ekonomikoagoak erabiltzeko aukera ematen dute ispiluei eusteko”, azaldu du Cristobal Villasante Teknikerreko Energia Berriztagarrien koordinatzaileak.

Soluzio bera hainbat tamainatako instalazioetarako

MOSAIC instalazio-kontzeptuak eskaintzen duen modularitatearekin, soluzio berbera eman dakieke instalazioen askotariko tamainei; besterik gabe, moduluen kopurua aldatuz. MOSAIC moduluak multzokatu egiten dira, potentzia-bloke berbera eta metatze-sistema komunak parteka ditzaten. Horrela, adibidez, potentzia altuko instalazioak planteatu daitezke, baina neurri txikiko instalazioen abantaileri eutsita; hala nola, indargabetze atmosferiko baxua eta zehaztasun-errekerimendu ez hain murriztaileak.

Europar Batasunaren Horizonte 2020 programak finantzatu du MOSAIC proiektua: programa hori 2016an abiatu zen, eta bazkide espainiarrak, alemanak, frantsesak, daniarrak, txekiarrak eta italiarrak dauzka.

Proiektu honek eragina du GJH 9 - Industria, berrikuntza eta azpiegitura eta GJH 7 helburuetan. Energia eskuragarria eta ez kutsatzailea lortzen da, garapen iraunkorraren ekonomia- eta ingurumen-zutabeei eta, azken batean, gizarte osoari laguntzeko.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta fabrikaziorako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

This project has received funding from the European Union's Horizon 2020 research and innovation programme under grant agreement No. 727402